

Irakurtzea plan bikaina da!

begiko

2. alea






Itzal-antzerkia I

Ez al duzu inoiz izan gogorik zuk zeuk sortutako antzerki bat antzezteko?
Hauxe da zure aukera, jarraian azalduko dizugu nola:

1. **Idatzi** txotxongiloekin antzeztu ahal izango duzun istorio bat. Izan ondokoak gogoan:
 - Laburra eta sinplea izan behar da kontakizuna.
 - Elkarrizketetan parte hartzen duen pertsonaia bakoitzak bere antzezpena egin beharko du.
2. Antzezlana zuk eskuz egindako pertsonaien **itzailek antzeztuko** dute. Jarraitu irakurtzen eta ikusiko duzu zein erraza den zure panpinak diseinatzea. **1**
3. **Antzezlekuan** zure pertsonaien itzalak proiektatuko dira. Ondoko orrietan topatuko dituzu primerako antzeztokia egiteko pausoak.
4. Ikusle gehiago izan nahi badituzu, norbaitek antzezlana **grabatu** dezake eta grabazioa lagunei eta senideei bidali. Eskatu norbaiti antzezlana grabatu dezala, elkarbanatu nahi baduzu.

**Argiak, kamera...
ekin!**





Itzal-antzerkia II


Eszenografia

Zure itzal-antzerkien agertokia prestatzeko ideia batzuk emango dizkizugu.

1. Aulki bat




2. Mahai bat



2

3. **Kutxa bat.** Kutxaren atzealdea moztu eta geratzen den zuloa paper zuriaz estali. Jarri argi foku bat eta kokatu pertsonaiak argiaren eta kutxaren artean, haien itzala ikus dadin.






Itzal-antzerkia III

Pertsonaiak


Hasteko, pertsonaien zerrenda egin. Ikertu etxean dituzun objektuak eta ikusi nolakoa den hauek sortzen duten itzala. Ziur harrituko zaituztela, eta baliteke haietakoren bat pertsonaia perfektua izatea zure obrarako.

Zuk zeuk sortu ditzakezu bestela, zure eskuen itzala erabiliz, edo kartoi zati batean irudikatu duzun pertsonaia moztuz. Adibide batzuk ekarri ditugu hona, eta gogoan izan: bakoitzari zotz luze bat itsatsita errazago mugituko dituzu pertsonaiak.

Etxean dauden gauzak




Kartoizko pertsonaiak




3

Ahoa irekitzen eta ixten duten txotxongilo berritsuak



Beste adibide batzuk



Has dadila emanaldia!




Miniliburua

Folio bakar batekin liburu txiki handi bat sortu ahal izango duzu.

Beharrezko materialak:

- Folio 1
- Guraizeak edo artaziak
- Errotulagailuak edo koloretako margoak

1. **Tolestu** folioa marrazkietako argibideak jarraituz.
2. **Marraztu** eta **apaindu** azala.
3. Azkenik, idatzi nahi duzuna liburuko orrialde txikietan.



4

**Ez dira soilik liburu handiak istorio handiak kontatzen dituztenak.
Idatzi zerbait handia liburu txiki-txiki batean.**



Mugikari hipnotikoa


Egunotan ohi baino denbora gehiago igaro duzu zeure gelan eta ziur gela itxuraldatzeko gogoia izango duzula. Gehitu ezazu mugikari bat.

Beharrezko materiala:

- Folio 1
- Guraizeak edo artaziak
- Kola edo lekeda
- Errotulagailuak edo koloretako margoak

1. **Tolestu** folioa marrazkietako argibideak jarraituz.
2. **Itsatsi** lokarri bat eta zintzilikatu leiho batetik gertu airean mugi dezan.

5



Hartu arnasa sakon,
lasaitu eta utz ezazu
mugikariak
hipnotizatu zaitzan.



Zizka-mizka

Aperitifaren orduan, izan zaitez zeu chefa eta proposatu mokadu original eta osasungarri hau.

Osagaiak:

- *Garbantzuko poto 1*
- *Piperrauts gozo edo minezko kolaratxokada 1 (jasan dezakezunaren arabera)*
- *Baratxuri hauts koilarakadatxo 1*
- *Kumino koilarakadatxo 1*
- *Oliba olioeko 3 koilarakadatxo*
- *Gatza*

1. **Garbitu** eta **xukatu** garbantzuak. Lehor itzazu sukaldeko paperarekin.
2. **Berotu** labea 200 gradutan.
3. **Nahastu** ontzi batean espeziak eta olioak.
4. **Bota** garbantzuak ontzira eta nahastu dena.
5. **Jarri** labeko papera erretilu batean eta **bota** horra nahasketara.
6. **Sartu labera** 35 minutuz 200 gradutan.
7. **Hozten** utzi eta bota nahi haina gatz.

Denak aho zabalik utzi nahi badituzu, ausartu jarraian proposatzen dizugun kukurutxoa egiten.

**Ezingo diozu
jateari utzi!**





Kukurutxoak da maite dudan mokadutxoak


Paperezko ahozapi batekin edo sukaldeko paperarekin zure mokadutxoak zerbitzatzeko kukurutxo bat egin ahal izango duzu.

Beharrezko materialak:

- Paperezko ahozapia edo sukaldeko papera
- Zeloak edo grapagailua
- Mokadutxoak: garbantzuak, krispetak edo fruitu lehorrak

1. **Tolestu** ahozapi bat edo sukaldeko paper zati bat irudian bezala.
2. **Itsatsi** zeloarekin edo grapaz lotu, desegin ez dadin.
3. **Jarri** barruan zure mokadu gustukoena.

7



Orain jaten
duzun bitartean
ahozapia izango
duzu eskuan.





Autora

Inés Burgos

Azaleko ilustrazioa

Mariona Cabassa

Al desierto por un pez

liburutik
(Loqueleo, 2020)